7.- AGIRIAK ESKURATZEA: Arco fotokopia-dendan eskuratu ahal izango dira agiriak –San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; tel.: 945-232813 eta 945-140678, faxa: 945-140678– astegunetan, 09:00etatik 14:00etara nahiz 16:00etatik 20:00etara bitartean, aurreko atalean adierazitako epe berean.

8.- ESKAINTZAK AURKEZTEA:

LEKUA: Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegian-Olarizuko etxaldea; Jauregilanda kalea, z/g.

EPEA: 15 egun natural, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

ORDUTEGIA: 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

POSTA BIDEZ IGORTZEA: Kontratazio Araudi Orokorraren 100. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da.

9.- ESKAINTZAK AGERIAN JARTZEA: B gutun-azalak (jarduteko gaitasuna, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren lanegun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azalak (eskaintza ekonomikoa eta agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B kartazalak zabaltzen diren eguna berean, hamabiak eta laurdenetan (12:15).

10.- ESKAINTZA-EREDUA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK: Baldintza-orrietan adierazitako eskaintza-ereduaz baliatuz aurkeztu beharko dituzte eskaintzak lehiakideek, baita hartan zehaztutako agiriak aurkeztu ere.

11.- LEHIA-IRAGARKI HONEN GASTUEN ORDAINKETA: Esleipena egokitzen zaionaren kontura joango da.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko urriaren 10ean.– INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIKO LEHENDAKARIA.

7º.- RETIRADA DE LA DOCUMENTACIÓN: La retirada de la documentación podrá realizarse en la Fotocopistería Arco en la calle San Antonio número 16, 01005 Vitoria-Gasteiz (Teléfonos: 945-232 813 y 945-140 678, Fax: 945-140 678), de lunes a viernes en horario de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00 horas, en el mismo plazo señalado en el apartado anterior.

8º.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES:

LUGAR: En el Centro de Estudios Ambientales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en Casa de la Dehesa de Olárizu, calle Campo de los Palacios s/n.

PLAZO: En el plazo de 15 días naturales contados desde el siguiente al de publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava. Si el último día fuera sábado o festivo, se trasladará al siguiente hábil.

HORARIO: De 8:30 a 13:00 horas de lunes a viernes.

ENVIO POR CORREO: En las condiciones establecidas en el artículo 100 del Reglamento General de Contratación.

9º.- APERTURA DE PROPOSICIONES: La apertura del sobre “B” (capacidad de obrar, solvencia económica, financiera y técnica o profesional) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto no público, a las once horas y treinta minutos (11:30 horas) del primer miércoles hábil siguiente al día de terminación del plazo de presentación de proposiciones.

La apertura del sobre “A” (proposición económica y documentación técnica) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a las doce horas y quince minutos (12:15 horas) del mismo día de apertura del sobre “B”.

10º.- MODELO DE PROPOSICIÓN Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR: Los licitadores deberán presentar sus ofertas ajustadas al modelo de proposición previsto en el pliego de condiciones y aportarán los documentos que en el mismo se señalan.

11º.- PAGO DE LOS GASTOS DE ESTE ANUNCIO DE LICITACIÓN: Serán por cuenta del adjudicatario.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2003.– EL PRESIDENTE DEL CENTRO DE ESTUDIOS AMBIENTALES.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA SAILA

*Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzua*

**6.705**

**3. Sektore Iragankorreko (ST-3), Lakuako garai bateko 9. sektoreko, Antolakuntza Plan Partzialaren 4. Aldakuntza.**

Hauxe erabaki zuen udalbatzarrak 2003ko irailaren 19an egindako ohiko osoko bilkuran:

Lehena.- 3. Sektore Iragankorreko (ST-3), Lakuako garai bateko 9. sektoreko, Antolakuntza Plan Partzialaren 4. Aldakuntzari behin betiko onespena ematea, VISESAren ekimenez.

2.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitara dadila agintzea, horrela xedatzen baitute Lurzoruari buruzko 1992ko Testu Bateginaren 124. artikuluak eta Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko Legearen 70.2 artikuluak.

Erabaki horrek amaiera ematen dio administrazio bideari; berorren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusian, jakinarazten denetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko urriaren 7an.– Alkate Lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO DE URBANISMO

*Servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística*

**6.705**

**Cuarta modificación Plan Parcial de Ordenación del Sector Transitorio Tres (ST-3) antiguo Sector número 9 de Lakua.**

En sesión ordinaria celebrada por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con fecha 19 de septiembre de 2003, se adoptó el siguiente acuerdo:

1º.- Aprobar con carácter definitivo la cuarta Modificación del Plan Parcial de Ordenación del Sector Transitorio Tres (ST-3) antiguo Sector 9 de Cachua, a iniciativa de Visesa.

2º.- Disponer la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, de conformidad con lo previsto en el artículo 124 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1992, y en los términos prevenidos en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local.

La presente resolución pone fin a la vía administrativa y contra ella puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de Dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2003.– El Alcalde-Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

INGURUMEN ZERBITZUA

**6.706**

**Iragarkia**

Jarduera instalatzeko udal baimena eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonek, azaltzen diren lekuetarako:

## VITORIA-GASTEIZ

SERVICIO DE MEDIO AMBIENTE

**6.706**

**Anuncio**

Por las personas que se citan a continuación se ha solicitado Licencia Municipal de Actividad en los emplazamientos que se relacionan: